

Denborak ez du noiz

Egunero lez, burdinbideak ateratzen duen hotsak iraganaren oroitzapenak gogora ekartzea eragotzi dit. Trenaren leihotik so, ibaiaren uretan begirada murgiltzen saiatu arren, arreak datoz eta ez dut ihes egiteko biderik aurkitu. Zerua dut helduleku bakarra, baina behelainoak lausotu du nire ahalegina. Azkenik heldu naiz, trena gelditu eta helmugara heldu naiz. Nire egunerokoan txertatu den errealitateari aurre egiteko tenorea heldu da, nire bizitzaren maldan nekez gainditzea lortzen dudana unea iritsi da.

Egoitzaren ate nagusia zeharkatzean, ohiko tramiteak bete eta igogailuan abiatu naiz. Laugarren solairura heldu aurretik, ispiluan islatuta ikusi dut nire ahulezia. Aurpegia hits, indarge, atea zabal ez dadin esperoan, errealitate gordinari aurre egiteko izu (edo koldar?). Argi horiak goxotasuna eransten dio pasillo laburrari, paretetako apaindurek edertu egiten dute tristeziaren korridorea. Heldu naiz, eta, atearen beste aldean ikusi dut, gurgil-aulkia itsatsita, bizitzaren patuari amore emanda. Aita.

Gerturatu naiz. Nire eskua bere masailean jarri eta gero, apenas zimurrik ez duen bere azal leuna laztandu dut eztiki, emeki. Behin eta berriro. Lo dago, bizitzak nekatu du eta lo darrai. Aldameneko jarlekuan eseri eta so geratu natzaio. Bere ametsetatik esnatzean, belarri ondora gerturatu eta nire izena xuxurlatu diot. Ezpain dardartien artean irribarre txiki eta galkorra marraztu du, ongietorriaren seinale.

Gurgil-aulkia bultzatuz logelan sartu gara, gau amaigabeen espazio mugatua, amets iheskorren dantzalekua. Egun goibel eta hotzari aurre egiteko beharrezkoak diren arropaz babestu eta kaleratu gara, babeslekutik ihesean edo. Espaloiaren autobidean urrutiratu eta ibaiaren ertzerantz gerturatu gara, uraren goitibeheraren arrastora. Eskutik heldu eta isilune luzean elkartu gara.

Begi orlegi eta argitsuek bere begirada edertzen dute, baina distira berezia eduki arren, nekatu dira eta atsedena hartzea erabaki dute. Bizi oso baten lekukoak pausatu egin dira, betirako. Balentziaga ontzioletako hotsak urruti geratzen zaizkio, ozenak izan arren airean urrutiratzen dira, hegan. Nire hitzek lekua bilatzen dute bere ezinean, hitz motelez aurrez-aurre duena irudikatzen saiatu naiz, eta, buruarekin egindako keinu xume batek adierazi dit ohartu dela, ahalegina balekoa dela alegia.

Metalezko “gurditxo”tik tiraka, aitzina egin dugu kaiaren muturrean dagoen itsasargiaren silueta bilatuz. Heldu gara, eta, zerumugari so, ilunabarrak harrapatu gaitu bere sarean. Aitaren ilunabarra ezin itsasargiaren distirak esnatu, aitaren ilunabarra ezin egunsentiak goxatu. Nire eskuen laztanak, nire hitzen ur-jauziak erakutsi nahi diote paisaia, margotu nahi diote kolorezko irudia eta, halako batean, burua zerurantz jaso du hori guztia bilatuz, imajinatuz, gertu duela dastatu nahian edo. Ziur naiz, bere bizitzaren argazki-albumean bilatu dituela une hauek, bere bizitza luzearen paragrafoetan irakurri dituen lerroetan murgildu dela adierazitakoa berridatzi nahian. Poz txikiak, bizitzaren apurretan, poz txikiak bizi oso baten gailurrera heltzear.

Itzulerako bidean abiatu gara, aterpearen bila. Itsasoaren maindire urdin eta barea atzean utzita, herriaren bihotzean murgildu gara. Ibaiaren ertzean hiru gazte arrantzan, urak zeharkatzen dituzten bi trainerilla ahalegin betean, eskolatik atera diren umeen abarrotsak, soka luzez loturiko txakurren zaunka kexatiak, lagun eta familiak tabernetako mahaietan solasean... egunerokoan ohikoak diren irudiak, irudien egunerokoan murgiltzeko aukerak. Bizitzaren hots ozenak han eta hemen, itxaropenaren murmurio galkorrak. Horiek guztiak gibelean laga eta espaloien autobidean abiatu gara berriro, gauaren aterpea bilatuz, bizitzan irauteko atsedenlekuaren peskizan.

Egoitzara gerturatzeak etsipenaren uhartera bidaiatzea bezalako sentsazioa sortu dit, bizitzaren bidaia-agentziak iragarritako txangoa alegia. Ate nagusia zeharkatu eta igogailuak lagundu digu ezina gainditzen, eta logelarako pasilloa dagoen solairuan lekua hartzen. Logelan arropak erantzi eta jangelara, afal orduaren mahai bueltan. Agur esateko ordua, bihar arte. Unerik gogorrena heldu da, bihotza iraultzen den unea, malkoei eusteko ahalegin nekeza. Maite dut, eta halaxe esan diot bere aurpegia ferekatzen dudana bitartean. Begiak umel, bihotza umezurtz. Itzuliko naiz, bai, halaxe agindu diot, baina gaua bere bakarrean igaroko du, ametsen konpasean.

Bizkarra eman eta banoa. Urrats txiki eta astunek nire ibilera moteldu dute, nire buruaz errukitzen saiatu naiz, baina ez dut nire erraiak sosegatzea lortu. Geltokirako bidea luzea gertatu zait, hankak astun noraezean ihesean noala iruditzen zait, baina ez dut atzera begiratzeko kemenik, ez dut errealitate gordinari aurre egiteko adorerik. Geltokiko bozgorailutik trenaren etorrera iragarri dute, etxerako itzulera heldu da.

Leihoaren ondoko jarlekuan eseri naiz, ahituta, indarge, ahul. Bat batean sentimenduen akelarrea piztu zait, eta ez dakit nola egin dantza. Trenaren triki-trakak amets gaiztotik

iratzarri eta hondamenditik atera nau. Xabier Lizardi poetaren bultzi-leiotik begira jarri naiz ibaiaren urak marrazten duen lerroa bilatuz, baina ezer ez, iluna da nagusi. Ortzian izarrak irakurtzen saiatu naiz, baina bat ere ez, beltza da nagusi. Beltza eta iluna, iluna eta beltza, ezdeusaren errepublika. Aurrera egin ahala, trenak zeharkatzen dituen tarteko geltokietako argiek itxaropen iheskorren kale hestu eta laburra erakutsi didate. Ihesaldi iragankorra.

Distantziak luzatu du etena, denborak eten du erlojua. Eskuak patrikan barneratu, makur, lurzoru grisean urratsak marraztuz iritsi naiz etxera, heldu naiz helmugara. Edo akaso ez? Egunsentiaren esperoan, loaren hatzaparrek harrapatu naute eta, errenditu naiz. Bihar beste egun bat izango da, beste bidaia bat, beste besarkada bat, sentimenduen beste eztanda bat. Itxaropenak ez du huts egiten, geratzen zaidan helduleku bakarra baita.

...

Egunero lez, burdinbideak ateratzen duen hotsak iraganaren oroitzapenak gogora ekartzea eragotzi dit. Trenaren leihotik so... **baina denborak ez du noiz!**

“Txertudi”